

2007KO UZTAILAREN 25EAN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILERAREN AKTA

LEKUA: Beasaingo Udalerria

ARETOA: Batzar Aretoa

EGUNA: Hogeita bosta

HILABETEA: Uztaila

URTEA: Bi mila eta zazpi

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Bost (5)

MAHAIBURUA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Begoña Lasa Royuela
Jon Kortaberria Lasa
Fernando Boada González
Julio Herreros Serna

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- OBRAK KONTRATATZEA.

a.- Deialdia hutsik uztea eta deialdi berri bat egitea erretiratuen etxera iristeko igogailua jartzeko.

Ezagutzera eman da, 2007LICO0008 espedienteari buruz, kontratazio-mahaiak 2007ko uztailaren 25ean hartutako proposamena:

“AURREKARIAK

I.- 2007ko martxoaren 16ko Gobernu Batzordeak deialdi publikoa egitea erabaki zuen, erretiratuen etxeko irispideetan arkitektura-oztopoak ezabatzeko obrak kontratatzea, 122.876,65 €ko lizitazio prezioarekin eta 4 hilabeteko egikaritze epearekin.

II.- 2007ko apirilaren 2ko GAO n argitaratu zen deialdia eta eskaintzak aurkezteko epean, ondorengoa aurkeztu ziren:

- CONSTRUCCIONES KOLDO KEREJETA (121.364,62 € eta egikaritze epea 3,5 hilabetekoa).

III.- Lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi da CONSTRUCCIONES KOLDO KEREJETAren kasuan ez duela kreditatu zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta dagoenik eta enpresaren eskritura-eratzeari ez dator bat enpresa-sailkapenaren ziurtagirian aipatzen denarekin.

IV.- 2007ko uztailaren 16ko datarekin, udal-aparejadoreak ondorengo txostena eman du:

1. CONSTRUCCIONES KOLDO KEREJETAk ez memoria teknikoak, ez lanak burutzeko epeak, ez pertsonalaren eta laguntza teknikoaren zerrendak, ez makinariaren zerrendak, ez trafikoaren azterketak ez dute dagokien agiriak aurkeztu.
2. Interesatuarekin bilera bat egin zen, Udaleko Kontu-hartzailearekin batera, bertan eskaintzaren irregularitateak ezagutarazi zitzaizkion, eta 10 eguneko epea eman zitzaion agiriak aurkezteko. 15 egun pasa ondoren, telefonoz elkarrizketa bat izan nuen, eta eskatutako agiriak aurkezteko arazoak zitu zela esan zidaten.

Horren ondorioz, aurkeztutako eskaintzak teknikoki ez ditu betetzen baldintza pleguak eskatutako baldintzak, eta horren ondorioz ez dago erabat osatuta.

Kontutan izanik, lizitazioarako oinarri izan den proiektua zuzena ez dela, Kontratazio-Mahaiak kontratazio organoari ondorengoa PROPOSATU dio:

- 2007ko martxoaren 16an Gobernu Batzordeak erretiratuen etxeko irispideetan arkitektura-oztopoak ezabatzeko obrak kontratatze deialdia hutsik uztea.

- Deialdia egitea lizitazio berri bat egiteko.”

Bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

b.- Arriarango Intxaurpe Elkartea handitzeko obraren deialdia hutsik uztea.

Ezagutzera eman da, 2007LICO0006 espedienteari buruz, kontratazio-mahaiak 2007ko uztailaren 25ean hartutako proposamena:

“AURREKARIAK

I.- 2007ko martxoaren 16ko Gobernu Batzordeak deialdi publikoa egitea erabaki zuen, Arriarango Intxaurpe Elkarteari hazkuntza obrak kontratatze. 277.052,98 €ko lizitazio prezioa eta 6 hilabeteko egitaritza epea.

II.- 2007ko apirilaren 2ko GAO n argitaratu zen deialdia eta eskaintzak aurkezteko epean, ondorengoak aurkeztu ziren:

- CONSTRUCCIONES KOLDO KEREJETA (268.545 € eta egikaritze epea 5 hilabetekoa).
- IKENA (263.495,23 € y egikaritze epea 6 hilabetekoa)

Aldi berean kartazal irekia aurkeztu zen barruan aurrekontu bat zegoelarik, baina dokumentaziorik ez zuenez, ez zen onartu.

III.- Lizitatuzaileek aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ikusi da CONSTRUCCIONES KOLDO KEREJETAREN kasuan ez duela kreditatu zerga betebeharretan eta gizarte segurantzaren eguneratuta dagoenik eta enpresaren eskritura-eratzeari ez dator bat enpresa-sailkapenaren ziurtagirian aipatzen denarekin. IKENAK aurkeztutako dokumentazioa, aldiz zuzena da.

IV.- 2007ko uztailaren 18ko datarekin, udal-aparejadoreak ondorengo txostena eman du:

1. CONSTRUCCIONES KOLDO KEREJETAK ez memoria teknikoak, ez lanak burutzeko epeak, ez pertsonalaren eta laguntza teknikoen zerrendak, ez makinariaren zerrendak, ez trafikoaren azterketak ez dute dagokien agiriak aurkeztu.
2. Interesatuarekin bilera bat egin zen, Udaleko Kontu-hartzailearekin batera, bertan eskaintzaren irregularitateak ezagutarazi zitzaizkion, eta 10 eguneko epea eman zitzaion agiriak aurkezteko. 15 egun pasa ondoren, telefonoz elkarrizketa bat izan nuen, eta eskatutako agiriak aurkezteko arazoak zituztela esan zidaten.
3. IKENAK kontraesan batzuk aurkitu ditu Arkitektoak idatzitako proiektuan. Kasu batzuetan ez dira kontuan izan armadura eta enkofratuak, edo eustormaren neurri batzuk ez dira zuzenak, ondorioz, obraren balorazioa 83.000 euro gehiagokoa da, hau da, aurreikusitakoa baino %31,8 gehiago.

Nire iritzian, obra ez litzateke esleitu behar, ez behintzat proposatzen den moduan aurkeztutako proiektua. Deialdia hutsik utzi beharko litzateke eta proiektua aldatu.

Kontutan izanik, lizitaziorako oinarri izan den proiektua zuzena ez dela, Kontratazio-Mahaiak kontratazio organoari ondorengoa PROPOSATU dio: **2007ko martxoaren 16an Gobernu Batzordeak Arriarango Intxaurpe Elkarteak handitzeko obrak kontratatze deitutako deialdia hutsik uztea.**

Bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

2.- BEASAINGO UDALAREN ZERGA, TASA ETA BESTELAKO SARRERA PUBLIKOEN KOBRAKETA BIDE EXEKUTIBOA KONTRATATZEA. Kontratu esleipen proposamena.

Ezagutzera eman da, 2007EKBO0047 espedienteari buruz, kontratazio-mahaiak 2007ko uztailaren 25ean hartutako proposamena:

AURREKARIAK

Alkateak 2007ko ekainaren 22ko datarekin ebazpena eman zuen, Beasaingo Udaleko zerga, tasa eta bestelako sarrera publikoen kobraketa bide exekutiboan egiteko laguntza zerbitzua, lehiaketa bidez kontratatzeko deialdia eginez eta lehiaketa arautzeko baldintza plegu administratibo eta teknikoak onartuz.

Deialdia 2007ko ekainaren 28ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, adieraziz eskaintzak aurkezteko epea hamabost egunekoa izango zela. Epe horretan, bakarrik GESMUNPAL, S.A. enpresak aurkeztu zuen bere proposamena.

2007ko uztailaren 16an, plika-irekitze ekintza burutu zen eta ezagutzera eman zen GESMUNPALEk aurkeztutako proposamena, hau da, aipatutako zerbitzuak emateagatik, jasotako zenbatekoaren printzipalaren gaineko %19a eta berandutza interesen %50a kobratzea proposatzen duela.

Lizitatzailleak aurkeztutako dokumentazio administratiboa aztertu da eta ondo dagoela egiaztatu da. Kontuhartzaileak, bere aldetik txostena eman du eta adierazi du, lizitatzailleak, baldintza pleguak eskatutako jarduerak betetzeaz gain jendaurrerako eskaintzen duen ordutegia Udalak duen ordutegiarekin bat datorrela eta hau da, hain zuzen ere, bereziki baloratzen den aspektu bat.

Horren ondorioz, Patxi Plazaola Muguruza, Lurdes Alegria Lasa, M^a Jose Irizar Garcia eta Itziar Arostegi Apaolaza kontratazio-mahaia osatzen dutenak, KONTRATAZIO ORGANOARI ondorengo proposamena egin diote:

Lehenik. Zerga, tasa eta bestelako sarrera publikoen kobraketa bide exekutiboan egiteko laguntza zerbitzua, GESMUNPAL, S.A.ri, esleitzea.

Bigarren. Esleipena, onartutako baldintza tekniko eta administratiboaren eta enpresak aurkeztutako eskaintzaren arabera egiten da.

Hirugarren. Esleipen prezioa ondorengoa izango da: jasotako zenbatekoaren printzipalaren gaineko %19a eta berandutza interesen %50^a.

Laugarren. Egikaritze epea urtebetekoa izango da kontratua sinatzen denetik zenbatuta. Urtero tazituki luzatuko da, alde batek espresuki salatzen ez badu. Edozein kasutan ere, kontratuaren iraupena luzapenak barne, lau urtekoa izango da gehien jota.”

Bozketa eginda aho batez onartu da proposamena.

3.- KONTSULTORIA ETA ASISTENTZIA KONTRATAZIOA. Ekipo tekniko kualifikazioduna kontratatzea hirigintzako asistentzia emateko.

Gai hau mahai gainean utzi da, talde politikoak oraindik gaia aztertzen ari direlako.

4.- ERREPARTZELAZIO PROIEKTUA. AUSARTONDO, S.L.k aurkeztutako 1HAko 1.2 UEko errepartzelazio Proiektuari behin betiko onespena ematea.

Alkateak, 2007PRRE0002, espedienteari buruzko berri eman du, aurrekari hauek azalduz:

AURREKARIAK

I.- 2007ko maiatzaren 25eko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, hasierako onspena eman zitzaion baldintzekin, Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen 1 Areako 1.2 Unitate Egikaritzeko Errepartzelazio Proiektuari eta jabe bakarrari jakinarazteaz gain, espedientea jendaurrean jarri zen hogeitai laneguneko epean, 2007ko ekainaren 7ko GAOn, 2007ko maiatzaren 31ko Diario Vascon eta 2007ko maiatzaren 29ko Berrian.

II.- 2007ko ekainaren 27an alegazioak aurkezteko epea amaitzen zen, baina epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu. Aldiz, AUSARTONDO, S.L. sustatzaileak 2007ko uztailaren 26an Testu Bateratua aurkeztu du hasierako onspenarekiko Ebazpenean aipatutako baldintza guztiak aurreikusiz.”

Horren ondorioz eta kontutan izanda, 2007ko uztailaren 25ean idazkariak emandako txostena, Errepartzelazio Proiektu honi behin betiko onspena ematea dagokiola dio.

5.- 8. SEKTOREKO HIRIGINTZA PROIEKTUA. Behin betiko onspena egiteko proposamena.

Alkate jaunak, 2003PRUR0004, espedienteari buruzko berri eman du, aurrekari hauek azalduz:

I.- 2005eko abenduaren 2ko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, 8. Sektoreko (8 S) Konpentsazio Batzordeak sustatutako eta Juan Jose Garmendia Soria arkitekto jaunak idatzitako, 2.484.264,22 Euroko 8. Sektoreari buruzko (8 S) Hirigintza Proiektuari” hasierako onspena eman zitzaon.

II.- 2005eko abenduren 20ko eta 239 zenbakia duen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 8 Sektorearekiko Hirigintza Proiektuaren hasierako onspena argitaratu zen. Iragarri bera, Diario Vascon (05-12-14) eta Berrian (05-12-05) argitaratu zen eta alegazioak aurkezteko hamabost eguneko epean “G. P. ALGAR, S. L.” eta INVER C.G.I., S.A.k alegazioa aurkeztu zuten

adieraziz, Hirigintza Proiektuaren hasierako onespeneren berri, Trenbide Azpiegitura Administrazioari eman beharko litzaioke.

III.- Aldi berean, Hirigintza Proiektua Bide Azpiegituretarako Departamendura bidali zen eta honek Iparraldeko eremuari buruzko aldeko txostena eman zuen eta Hegoalderako eremuari buruz aurkako txostena.

IV.- 2006ko martxoaren 30ean Osoko Bilkurak, konpentsazio sistema aldatu eta kooperaziora pasatu zenez, eta ohartzen denez Hirigintza Proiektuan Oramiztegira doan uraren tutueriaren trazatua, nahiz saneamenduko kolektorearen trazatua aurreikusi ez denez, Udalak proiektuaren idazleari Hirigintza Proiektuaren aldaketa eta bere aurrekontua eguneratzea, A lursailaren kostua besteengandik besterenduz, enkargtu zion eta aurkeztu ondoren, Bide Azpiegituretarako Departamendura bidali da eta honek 2007ko uztailaren 11ko datarekin aldeko txostena eman du.”

Horren ondorioz eta kontutan izanda, 2007ko uztailaren 27an idazkariak emandako txostena, Proiektu honi hasierako onspena ematea eta espedientea jendaurrean jartzea alegazioak aurkeztu ahal izateko dagokiola dio.

6.- PERTSONALA. Administrariak ordezkatzeko poltsa.

Ezagutzera eman da, lehen zegoen administrarien poltsa agortuta zegoela eta beharrezkoa dela beste poltsa berri bat sortzea ordezkapenak egiteko. Poltsa hori sortzeko eskaintza, INEM eta LANGAri bidali zaie eta frogak irailan egingo dira.

7.- INFORMAZIOA

Alkateak gai desberdinei buruz hainbat informazio eman du:

Arangoiti Egoitza. Batzordean ordezkariak aldatu egin dira. Orain honela osatuta dago. Osakidetzako ordezkaria, Elizakoa, herritar bat (Luis M^a Sarriegi), eta Udalaren aldetik, Alkatea, Gizarte-ongizateko lehendakaria eta gizarte laguntzailea.

Anbulatorio zaharra erauztea. Asmoa abuztuan erauztea zen, baina horretarako Gizarte Segurantzako Altxortegitik eraikinaren titularitatea berreskuratu behar da.

Bidegorria. Geltokitik Igartza Oleta kalerantz doan bidegorria ireki egingo da.

Bilerak. Egutegia prestatzeko asmoa dago.

Gazteriako teknikaria. Beharrezkoa da teknikaria kontratatzea eta horretarako oinarriak prestatuko dira.

Zinegotzien asignazioak. Asignazioak kobratu ahal izateko asistentziarena zehaztu egin beharko litzateke, izan ere, “udalkide bakoitzaren lana eta dedikazio” kontzeptuagatik ordaindu behar dena, zinegotzi bakoitzak, eta ez udal taldeak, jaso beharko luke, dagokion kitapenak praktikatuta, errenta aitorpenerako. Gai honek sortu litezkeen aldaketak irailean erabaki eta martxan jarriko dira.

8.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean ez da inolakorik aurkeztu.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.